



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Batzar Aretoan, **bi mila eta hemezortziko maiatzaren 2an** eguerdiko hamabiak direlarik **Urgentziazko eta Aparteko** bilkuran biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
DANIEL OYARZABAL LARRABURU
JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udal honetako Alkate Jauna, **Unai Loiarte Ansa**

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel , Goizuetako ordezeko Idazkaria.

Alkate Jaunak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua ematen du, horrela egiten delarik.

1.URGENTZIAZKO PREMIAREN ONESPENA

Alkateak Udalbatzari adierazi dio batzar honen urgentzia eta premiazkotasunaren arrazoa:

Emakume-gizonon arteko berdintasuna administrazio publikoen erantzukizuna da, modu aktiboan bilatu, sustatu eta indartu behar duguna. Joan den asteko Nafarroako Probintzi Auzitegiak emandako epaiak, bortxaketa ez eta indarkeri gabeko jazarpena dela esaten duenak, emakumeek jasaten duten indarkeriari babesten du, fokua beste behin biktimarengan jarriaz, bortxatzaileengan jarri beharrean. Nabarmen geratu da bide juridikionalak ez duela emakumea babesten, berak jasandakoaren erantzule egin baizik.

Udal ordezkariak, herritarren ordezkari instituzional gertuenak garen heinean ezin gara itsu, mutu, gor geratu adierazpen hauen aurrean. Eta garrantzitsua da sententziaren gaitzespena era tinko eta azkarrean ematea, inongo zalantzarik gabe herritarren erdiak jakin dezan: guk sinesten dizugu.

Indarkeria matxistaren aurrean erantzun azkarra emateko betebeharra daukagu administrazio publikoek.

2.-MOZIOA: 2016KO UZTAILAREN 7AN GERTATURIKO BORTXAKETAGATIK EMANDAKO SENTENTZIAREN INGURUAN.

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren sententzia jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an hainbat gizonek emakume bat bortxatu zuten, Goizuetako udaleko batzarrak honakoa ADOSTU DU:

LEHENIK.- Udal honek eta Goizuetako herriak bere babes, maitasun eta elkartasuna adierazten



die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

BIGARRENIK.- Sententziak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu eta, bereziki, jazotakoa sexu-abusu jarraitu gisa aitortu duelako. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko sententzia inpugnatu edo inpugnatuko duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

HIRUGARRENIK.- Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu sententzia honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu.

LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu eta, era berean, Goizuetako herriak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen.

BOSGARRENIK.- Udal honek berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.

Eguerdiko hamabiak eta hamar direnean Alkateak sesioa altxatzeko agindua ematen du, nik, Idazkariak ziurtatzen dudalarik.